

KOSTUEN EGITURA

Enpresa bat edo proiektu bat aurrera eramateko kostu ezberdinak daude, batzuk finkoak dira eta beste batzuk aldakorrak. Horregatik, nahitaezkoa da, gure enpresak aurrera egin ahal izateko, gastu hauek estaltzea.

Hasieran, inbertsio bat egin behar dugu enpresa ireki eta aurrera eramateko. Horretarako bankuari diru laguntza eskatu behar diogu. Denborarekin, enpresarekin irabazitako diruari esker, bankuari inbertsioarako emandako dirua itzuli eta gure gastu hori estaliko dugu.

Beraz, gure enpresako gastuak, bi ataletan banatzen dira:

KOSTU FINKOAK

Enpresa bateko kostu finkoak, ekoitzitako kopuruaren arabera ez diren gastuak dira. Hori dela eta, gure enpresarenak honako hauek dira:

- Unibertsitatei ordaindu beharrekoa
- Webgunearen sorrera
- Gure orientazio zerbitzueterako erabilitako plataforma digitalak
- Marketing-a (kartelak, esku-orriak,...)

KOSTU ALDAKORRAK

Enpresa bateko kostu aldakorrak, ekoitzitako kopuruaren arabera diren gastuak direla kontuan hartuta, gure enpresarenak ondorengoak dira:

- Ikasle bakoitzari ematen zaizkion kortesiazko karpeta eta boligrafoa (ikasle kopuruaren arabera da)

Ikasle kopuruaren arabera unibertsitateari ordaintzea pentsatu dugu hasiera batean. Hala ere, ondo aztertu ondoren, kostu finko gisa hartzea errealistagoa dela erabaki dugu.

TARIFAK

Gure zerbitzuagatik ordaindu beharrekoak:

- 20€ saio bateko
- 50€ aste bateko (3 saio)

Kostuak aztertu ondoren, gastuak estaltzeko eta etekina ateratzeko prezio aproposak ezarri ditugu. Ordainsari hauekin, etorkizunean berrikuntza berriak egin ditzazkegu.